kal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak kontratatuak.

*21. artikulua.–* Titulazioak eta ziurtagiriak.

1.– Prestakuntza-programak garatu dituzten instituzioek edo irakaskuntza zentroek behar diren titulazio edo diplomak egingo dituzte.

2.– Balio akademikoko titulazioetarako, laguntza jaso behar duen pertsonak bere herrian egindako ikasketak baliokidetzeko, dagokion dokumentazioa aldez aurretik aurkeztu beharko du, ikasketa hauetan parte hartu nahi badu.

3.– Kanpo harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, laguntzaren aldia bukatu ondoren, lehen aipatutako atalei dagokien titulu ofiziala lortzen ez duten onuradunei egindako prestakuntza aldiaren egiaztagiria egin ahalko die. Garatu dituzten ekintzen egiaztagiri zehatza ere eman ahalko die.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Dekretu honetan aurreikusita ez dagoen guztian urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarrita dagoena aplikatuko da.

*Bigarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko ekainaren 10ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

sabilidad civil, contratadas por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 21.–* Titulaciones y certificados.

1.– Las instituciones o centros docentes donde se hayan desarrollado los programas de formación, expedirán, en su caso, los títulos o diplomas correspondientes.

2.– Para el caso de las titulaciones con validez académica, la persona beneficiaria de la ayuda deberá previamente presentar la documentación para la convalidación correspondiente de los estudios cursados en su país de origen, que le permita el acceso a esas enseñanzas.

3.– La Secretaría General de Acción Exterior, al finalizar el periodo de la ayuda, podrá expedir a las personas beneficiarias que no obtengan el título oficial al que se refieren los apartados anteriores, un certificado acreditativo del periodo de formación llevado a cabo. Igualmente, se les podrá entregar un certificado detallado de las actividades que han desarrollado.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* En todo lo no previsto en este Decreto será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 10 de junio de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

## Zk-3738

AGINDUA, 2003ko maiatzaren 12koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Droga mendetasunen Aholku Kontseiluaren antolamendu eta funtzionamenduko arautegia aldatzen duena.

Droga mendetasunaren arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legeak 41. artikuluan ezartzen du Droga Mendetasunen Aholku Kontseiluak, droga mendetasunen aurkako borrokan inplikatutako gizarte-sektoreen partaidetzarako organo gorena den aldetik, besteak beste ondoko eginkizuna duela: bere antolamendu eta funtzionamenduko arautegia egitea.

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

## N°-3738

ORDEN de 12 de mayo de 2003, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se modifica el Reglamento de Organización y funcionamiento del Consejo Asesor de Drogodependencias.

La Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias, establece en su artículo 41 que el Consejo Asesor de Drogodependencias, configurado como órgano superior de participación de los sectores sociales implicados en la lucha contra las drogodependencias, tiene entre sus funciones la de elaborar su reglamento de organización y funcionamiento.

2002ko abenduaren 18an egindako osoko bilkuran, Aholku Batzordeak proposamen bat onartu du, Droga mendetasunen Aholku Kontseiluaren antolamendu eta funtzionamenduko arautegia onesten duen 2001eko otsailaren 13ko Aginduaren 27. artikulua aldatzeko.

Droga mendetasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legearen egitura instituzionala uztailaren 27ko 302/1999 Dekretuaren bidez garatu da; dekretu horren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dagokio Droga mendetasunen Aholku Kontseiluaren Antolamendu eta Funtzionamenduko Araudia onartzea.

Autonomia Erkidegoaren Administrazioko Sailak berregituratu zirenez, eta Sailen eskumenak bestela banatu zirenez, Droga mendetasunen Aholku Kontseilua egun ez dago Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari atxikita, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari baizik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen Lehendakariaren uztailaren 7/2001 Dekretuaren 10bis artikuluak, irailaren 17ko 19/2001 Dekretuan emandako idazkerarekin bat datorrela, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari dagozkion eginkizun eta jardun-arloak jasotzen ditu. Dekretu hori oinarri hartuta, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eginkizun eta jardun-arloak ezartzen dituen otsailaren 12ko 40/2002 Dekretua onartu zen.

Ondorioz, hauxe,

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.–* Droga mendetasunen Aholku Kontseiluaren Funtzionamendu eta Antolamenduko Arautegia onesten duen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2001eko otsailaren 13ko Aginduaren 27. artikulua aldatzea.

Ondokoa da oraingo idazkera:

*27. artikulua.–* Osaketa.

1.– Batzorde tekniko espezializatuak, gutxienera, lau kidek eta, gehienera, hamabostek osatuko dituzte. Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideak ez badira ere Droga Gaietako Zuzendaritzaren proposamenez Osoko Bilkurak izendatutako pertsonek parte hartu ahal izango dute batzorde teknikoetan.

2.– Batzorde bakoitzeko kideek, kideon artean, izendatuko dute eratuko den batzorde tekniko espezializatu bakoitzeko lehendakaria.

3.– Batzordekide bat arituko da batzorde tekniko espezializatuen idazkari, boz eta botoarekin.

En reunión plenaria celebrada el 18 de diciembre de 2002, el Consejo Asesor ha aprobado una propuesta de modificación del artículo 27 de la Orden de 13 de febrero de 2001, por la que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento del Consejo Asesor de Drogodependencias.

De acuerdo con el artículo 17 del Decreto 302/1999, de 27 de julio, por el que se desarrolla el dispositivo institucional contenido en la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de Drogodependencias, corresponde al Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social la aprobación del Reglamento de Organización y Funcionamiento del Consejo Asesor de Drogodependencias.

Debido a la reordenación de la estructura departamental de la Administración de la Comunidad Autónoma y a una nueva asignación competencial entre los Departamentos de la misma, el Consejo Asesor de Drogodependencias no está adscrito actualmente al Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, sino al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

El artículo 10bis del Decreto 7/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de conformidad con la redacción dada por el Decreto 19/2001, de 17 de septiembre, contempla las funciones y áreas de actuación que corresponden al nuevo Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, en base al cual se aprobó el Decreto 40/2002, de 12 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo único.–* Se modifica el artículo 27 de la Orden de 13 de febrero de 2001, del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, por la que se aprueba el Reglamento de Organización y funcionamiento del Consejo Asesor de Drogodependencias.

La nueva redacción es la siguiente:

*Artículo 27.–* Composición.

1.– Las Comisiones Técnicas Especializadas estarán integradas por un mínimo de cuatro y un máximo de quince miembros. Podrán formar parte de las mismas aquellas personas que sin ser miembros del Pleno del Consejo, sean designadas por éste a propuesta de la Dirección de Drogodependencias.

2.– El/La Presidente/a de cada una de las comisiones Técnicas Especializadas que se constituyan será nombrado/a por los integrantes de la Comisión, de entre sus miembros.

3.– Actuará como Secretario/a de las Comisiones Técnicas Especializadas, un/a miembro de las mismas, con voz y voto.

4.– Batzordeetako kideek beren burua edo instituzio edo talde bat ordezkatu ahal izango dute.

5.– Lehendakaria, Idazkaria eta, batzordeetako kideak hiru urteko eperako izendatuko dira; izendapen hori beste hiru urtez luza daiteke, behin bakarrik. Salbuespen gisa, Osoko bilkurak hainbat luzapen jarraitu onar ditzake, ordezkatutako instituzio edo erakundeak hala eskatuta.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Jendaurrean jartzeko eta litezkeen interesatuek erabiltzeko, Agindu honen eranskinean agertzen da 27. artikuluaren idazkera berria eta 2001eko otsailaren 13ko Aginduaren testua uztartzearen ondoriozko testua.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko maiatzaren 12a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

ERANSKINA

DROGA MENDETASUNEN AHOLKU KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUKO ARAUTEGIA

I. TITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Izaera eta erregimen juridikoa.

1.– Droga mendetasunen Aholku Kontseilua, batetik, droga mendetasunen kontrako borrokan ari diren sektore sozial guztiak parte hartzeko gorengo organoa da, eta, bestetik, droga mendetasunen arloko plan, arautegi eta lege egitasmoen gainean aholkuak emateko organoa da.

2.– Droga mendetasunen Aholku Kontseiluaren funtzionamenduari dagokionez, ondokoa hartu beharko da kontuan: uztailaren 27ko 302/1999 Dekretuan —droga mendetasunen alorreko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legean jasotako egitura instituzionala garatzen duena—, eta Arautegi honetan xedatutakoa. Arau horiek erregulatzen ez dutenari dagokionez, honako hau aplikatu beharko da: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. tituluaren II. kapituluan aurreikusitakoa.

4.– Los/as miembros de las Comisiones lo serán a título personal o en representación de alguna institución o colectivo.

5.– El/la Presidente/a, el/la Secretario/a y los/las miembros de las Comisiones serán designados/as por un periodo de tres años, renovables en una sola ocasión por otros tres. Excepcionalmente, el Pleno podrá aprobar sucesivas prórrogas a solicitud de la institución o entidad representada.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Para general conocimiento y facilitar el uso por los posibles interesados, se incorpora como Anexo a la siguiente Orden, el texto resultante de refundir la nueva redacción del artículo 27 al texto de la Orden de 13 de febrero de 2001.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de mayo de 2003.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

ANEXO

REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO DEL CONSEJO ASESOR DE DROGODEPENDENCIAS.

TÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1.***– Naturaleza y régimen jurídico.

1.– El Consejo Asesor de Drogodependencias es el órgano superior de participación de los sectores sociales implicados en la lucha contra las drogodependencias y de carácter consultivo y de asesoramiento respecto de proyectos de ley, reglamentos y planes en materia de drogodependencias.

2.– En cuanto a su funcionamiento el Consejo Asesor de Drogodependencias se regirá por lo dispuesto en el Decreto 302/1999, de 27 de julio, por el que se desarrolla el dispositivo institucional contenido en la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias, así como por lo dispuesto en el presente Reglamento. Con carácter supletorio será de aplicación lo previsto en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*2. artikulua.–* Egoitza.

Droga mendetasunen Aholku Kontseiluaren egoitza droga mendetasunen gaineko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako saileko bulegoetan egongo da, Gasteizen.

Bilerak Euskal Autonomia Erkidegoko beste edozein tokitan egin ahal izango dira, halaxe erabaki badu Kontseiluko lehendakariak, salbuespen gisa eta bidezko zioagatik.

*3. artikulua.–* Funtzioak.

Droga mendetasunen Aholku Kontseiluaren funtzioak ondokoak dira: droga mendetasunen alorreko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legearen 41. 4 artikuluan eta uztailaren 27ko 302/1999 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoak.

*4. artikulua.–* Osaketa.

Droga mendetasunen Aholku Kontseiluaren antolakuntza eta funtzionamenduari dagokionez, ondokoa da osaketa:

a) Organo kolegiatuak:

– Osoko Bilkura.
– Batzorde Iraunkorra.
– Batzorde tekniko espezializatuak.

b) Pertsona bakarreko organoak:

– Lehendakaria.
– Idazkaria.

## II. TITULUA
## KONTSEILUKO KIDEEZ

*5. artikulua.–* Kontseiluko batzordekideak hautatu eta izendatzea.

Droga mendetasunen Aholku Kontseiluko batzordekideak uztailaren 27ko 302/1999 Dekretuaren 11. Artikuluan ezarritako prozeduraren arabera aukeratuko dira.

Hautatu eta gero, Kontseiluko lehendakariak izendatuko ditu.

*6. artikulua.–* Kontseiluko kideen karguen iraupena, berrautaketa eta kargu-uztea.

1.– Aholku Kontseiluko batzordekideak hiru urterako izendatzen dira, epe hori beste hiru urtez luzatu daiteke.

2.– Jarraian aipatzen diren kasuetako bat gertatuz gero, Kontseiluko kideen agintaldia amaitu daiteke aurreko idatz-zatian aipatutako iraupenaldia iragan baino lehen. Hona hemen zein arrazoirengatik gerta daitekeen hori:

a) Aukeraketa egin zuen pertsonak edo erakundeak kargua baliogabetzeagatik.

b) Izendatutako kargua uzteagatik.

*Artículo 2.–* Sede.

El Consejo Asesor de Drogodependencias tiene su sede en los locales del Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de drogodependencias, sitos en Vitoria-Gasteiz.

Podrán celebrarse sesiones en cualquier otro lugar del Territorio de la Comunidad Autónoma por decisión de su Presidente/a, de modo extraordinario y por justa causa.

*Artículo 3.–* Funciones.

El Consejo Asesor de Drogodependencias tiene atribuidas las funciones previstas en el artículo 41.4 de la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias, y en el artículo 13 del Decreto 302/1999, de 27 de julio.

*Artículo 4.–* Composición.

En cuanto a su organización y funcionamiento el Consejo Asesor de Drogodependencias está integrado por los siguientes órganos:

a) Órganos colegiados:

– El Pleno.
– La Comisión Permanente.
– Las Comisiones Técnicas Especializadas.

b) Órganos Unipersonales:

– El/La Presidente/a.
– El/La Secretario/a.

## TÍTULO II
## DE LOS/AS MIEMBROS DEL CONSEJO

*Artículo 5.–* Designación y nombramiento de los/as vocales del Consejo.

Los/as vocales del Consejo Asesor de Drogodependencias serán designados/as conforme al procedimiento establecido en el artículo 11 del Decreto 302/1999, de 27 de julio.

Una vez que sean designados/as, serán nombrados/as por el/la Presidente/a del Consejo.

*Artículo 6.–* Duración de los cargos, reelección y cese de los/as vocales del Consejo.

1.– La duración del cargo de los/as vocales será de tres años, renovables por otros tres.

2.– El mandato de los/as miembros el Consejo podrá expirar antes del transcurso del periodo de duración del cargo a que se refiere el apartado anterior en los siguientes supuestos:

a) Revocación en el cargo acordada por la persona o institución que lo designó.

b) Cese en el cargo en que se fundamenta su designación.

c) Karguari uko egiteagatik edo Kontseiluko lehendakariari dimisioa aurkezteagatik.

d) Heriotzagatik.

e) Epailearen ebazpen irmoz, kargu publikoak betetzeko gaitasungabeturik nahiz indargabeturik geratzeagatik.

3.– Kasu horietan, agintaldiaren gainontzeko zatian ordezkoak hartuko du bere lekua.

7. ***artikulua***.– Kontseiluko kideak ordeztea.

Organo kolegiatuetako kideekin batera, ordeztaileak hautatu eta izendatuko dira, eta kideok ez daudenean, euren funtzioak beteko dituzte.

***8. artikulua***.– Kontseiluko kideen eskubideak.

Droga mendetasunen Aholku Kontseiluko kideek eskubide hauek dauzkate:

a) Beren organo kolegiatuen bileretan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea, eta beren botoaren esanahia eta arrazoiak adierazteko eskubidea.

b) Beren organo kolegiatuetan aztertzen diren gaiei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea; beste organo kolegiatuetan aztertutako gaiei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea ere badaukate, delako informazioa berariaz eskatzen badute behintzat.

c) Beren organo kolegiatuen deialdi berezia egin dadin eskatzeko eskubidea.

d) Dela aztergai-zerrenda osatzeko, dela beren organo kolegiatuetan erabakiak hartzeko nahiz gai jakin bat aztertzeko, proposamenak eta iradokizunak egiteko eskubidea.

e) Kontseiluaren mandatuz egin beharreko guztietan haren ordezkari izateko eskubidea, lehendakariaren ordezkaritza-ahalmen orokorra kaltetu gabe.

f) Bilkuren deialdia eta aztergai-zerrenda organo bakoitzarentzat ezarritako aurrerapenaz ezagutzeko eskubidea, eta bilkura horietan aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentuak eta informazioa —eta bai aurreko bilkurako akta— eskuratzeko eskubidea.

g) Eskeak eta galderak egiteko eskubidea.

h) Beren organo kolegiatuen bilkuretara joateagatik diru-ordaina jasotzeko eskubidea. Bilkura horietan parte hartzeko edo bertaratzeko egin beharreko joan-etorrietarako ere diru-ordaina jaso ahal izango da.

Herri-administrazioan duten karguaren edo lanpostuaren arabera organo kolegiatuko kide edo partaide direnentzat ez da bilkuretara joateagatik inolako diru-ordainik emango.

c) Renuncia o dimisión presentada ante el Presidente del Consejo.

d) Fallecimiento.

e) Resolución judicial firme que conlleve la inhabilitación o suspensión para cargos públicos.

3.– En los supuestos previstos en el párrafo anterior, la sustitución que haya de producirse lo será por el tiempo que reste de dicho mandato.

***Artículo*** 7.– Suplencias de los/as miembros del Consejo.

Junto a los/as vocales de los órganos colegiados se designarán y nombrarán los/as suplentes, que ejercerán sus funciones en ausencia de los primeros.

***Artículo 8***.– Derechos de los/as miembros del Consejo.

Los/as miembros del Consejo Asesor de Drogodependencias tienen los siguientes derechos:

a) Participar con voz y voto en las sesiones de los órganos colegiados de los que formen parte, así como expresar el sentido de su voto y los motivos que lo justifican.

b) Disponer de la información de los asuntos que se traten en los órganos colegiados de los que formen parte, así como del resto de órganos colegiados cuando así lo soliciten expresamente.

c) Solicitar la convocatoria, con carácter extraordinario, de los órganos colegiados de los que formen parte.

d) Presentar propuestas y sugerencias para su inclusión en el orden del día, así como para la adopción de acuerdos en los órganos colegiados de los que formen parte, o para el estudio de una determinada materia.

e) Ostentar, en cuantos actos hayan sido comisionados por el Consejo, la representación de éste, sin perjuicio de la atribución general de representación que corresponde al/la Presidente/a.

f) Conocer con la antelación que se señale para cada órgano la convocatoria y el orden del día de las sesiones y tener a su disposición los documentos e información sobre los temas que figuren en ellos, así como el acta de la sesión anterior.

g) Formular ruegos y preguntas.

h) Percibir una compensación económica en concepto de asistencia a los órganos colegiados en que participe, que será compatible con las indemnizaciones correspondientes a los desplazamientos que pueda originar la participación o concurrencia a las sesiones que se celebren.

En ningún caso se devengarán asistencias cuando la pertenencia o participación en el órgano colegiado de que se trate esté determinada por el cargo o puesto de trabajo que se ocupe en la Administración Pública.

Otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan dago ezarrita, oro har, bileretarako joan-etorriengatik eman beharreko diru-ordainak zein baldintzatan emango diren, bai eta gehienez zenbat diru emango den ere.

*9. artikulua.–* Kontseilukideen eginbeharrak.

Droga mendetasunen Aholku Kontseiluko kideek eginbehar hauek dauzkate:

a) Beren organo kolegiatuen bileretara joatea.

Kideren bat bilkuretara bi aldiz segidan edo, tartekaturik, hiru aldiz joan gabe geratuz gero, kide hura izendatu zuenari haren kargu-uztea proposatzea komeni den aztertu beharko du derrigor Osoko Bilkurak, kideak bileretara joan ez izana justifikatzen ez badu behintzat.

b) Arautegi honetan ezarritakoa eta, Arautegi hau garatzeko, kasuan kasu onar daitezen arau eta jarraibideetan ezarritakoa betetzea.

III. TITULUA
ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

I. KAPITULUA
OSOKO BILKURA

*10. artikulua.–* Definizioa eta osaketa.

Osoko Bilkura Kontseiluaren borondatearen organo erabakitzaile eta eratzaile gorena da, eta bere osaketa uztailaren 27ko 302/1999 Dekretuko 10. artikuluan araututa dago.

*11. artikulua.–* Eginkizunak.

1.– Droga mendetasunaren arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legearen 41.4 eta 27ko 302/1999 Dekretuaren 13. artikuluan Droga mendetasunen Aholku Kontseiluari agintzen zaizkion eginkizun guztiak Kontseiluaren Osoko Bilkurak hartu ditu bere gain.

2.– Horiez gain, eginkizun hauek ere Osoko Bilkurak bete behar ditu:

a) Kontseiluak epe laburrean eta luzean izan beharreko jardueraren nondik norakoak finkatzea.

b) Batzorde Iraunkorra eratzea. Uztailaren 27ko 302/1999 Dekretuko 15. artikuluan araututa dago batzorde horren osaketa.

c) Batzorde Tekniko Espezializatuak eratzea eta batzorde horien osaketa, helburuak eta funtzionamendu-arauak ezartzea.

d) Arautegi hau garatzeko eta aplikatzeko eman daitezen arauak eta jarraibideak onartzea, Kontseiluaren funtzionamenduarentzat egokiak baldin badira.

e) Legaren bidez Osoko Bilkurari bete-betean eman ez zaizkion aginpideak Batzorde Iraunkorraren esku uztea.

Las indemnizaciones por desplazamiento se percibirán en las condiciones y con el límite de cuantías previstas con carácter general en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero.

*Artículo 9.–* Deberes de los/as miembros del Consejo.

Los/as miembros del Consejo Asesor de Drogodependencias tienen los siguientes deberes:

a) Asistir a las sesiones de los órganos colegiados en cuya composición participen.

La inasistencia no justificada a dos reuniones consecutivas o a tres discontinuas a lo largo del año será causa para que el Pleno examine preceptivamente la conveniencia de proponer el cese a quien designó al/la vocal.

b) Actuar conforme al presente Reglamento y a las Directrices e Instrucciones que, en su caso, se aprueben en desarrollo del mismo.

TÍTULO III
ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO

CAPÍTULO I
EL PLENO

*Artículo 10.–* Definición y composición.

El Pleno es el órgano supremo de decisión y formación de la voluntad del Consejo, y su composición es la regulada por el artículo 10 del Decreto 302/1999, de 27 de julio.

*Artículo 11.–* Funciones.

1.– Las funciones que los artículos 41.4 de la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias y 13 del Decreto 302/1999, de 27 de julio, atribuyen al Consejo Asesor de Drogodependencias son asumidas íntegramente por el Pleno del Consejo.

2.– Además, corresponde al Pleno conocer y adoptar acuerdos sobre las materias siguientes:

a) Establecer las líneas generales de actuación del Consejo a corto y largo plazo.

b) Constituir la Comisión Permanente, cuya composición es la regulada en el artículo 15 del Decreto 302/1999, de 27 de julio.

c) Constituir Comisiones Técnicas Especializadas y establecer su composición, fines y normas de funcionamiento.

d) Aprobar las directrices e instrucciones que, en desarrollo y aplicación de este Reglamento, sean precisas para el funcionamiento del Consejo.

e) Delegar en la Comisión Permanente aquellas atribuciones que no estén legalmente conferidas en exclusiva al Pleno.

f) Erabakiak argitara eman behar diren erabakitzea.

g) Kontseiluaren funtzionamenduari buruzko Arautegia prestatzea eta aldatzea. Arautegia IV. Tituluan ezarritako prozeduraren arabera aldatu behar da.

*12. artikulua.–* Bilerak.

1.– Osoko Bilkuraren bilerak ohikoak eta bereziak izan daitezke.

2.– Osoko Bilkurak urtean birritan, behintzat, egin beharko ditu bilerak.

3.– Osoko Bilkurak bilera bereziak egin ditzake kasu hauetan:

a) Lehendakariak eskatuta.

b) Kontseiluko kideen herenak gutxienez eskatuta; eskaria idatziz egin behar zaio lehendakariari, eta, bertan, kide bakoitzaren nortasuna eta sinadurak azaltzeaz gainera, bilera berezian aztertu beharreko gaiak eta bilera egiteko arrazoiak zein diren adierazi behar da.

4.– Bilera berezia egiteko epea eskaria erregistratzen denetik kontatzen hasita hamabost egun naturalekoa izango da gehienez.

*13. artikulua.–* Deialdia.

1.– Kontseiluko lehendakariak egingo du Osoko Bilkuraren deialdia, zeina idatziz jakinaraziko baitzaie Osoko Bilkurako kide guztiei. Ohiko bilera bada, deialdia gutxienez bilera-eguna baino hamabost egun natural lehenago jakinarazi behar zaie kideei; bilera berezia bada, berriz, gutxienez bost egun baliodun lehenago jakinarazi behar zaie deialdia.

2.– Bilera non, noiz eta zein ordutan egin behar den adierazi behar da deialdian, eta bilerako aztergai-zerrenda ere aditzera eman behar da. Aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazio espezifikoa bidali behar da deialdiarekin; nolanahi ere, edozein arrazoirengatik -justifikatua izan behar du-, dokumentazio hori deialdiarekin batera bidaltzea ezinezkoa bada, gutxienez bilera-eguna baino bost egun baliodun lehenago bidali beharko da. Dokumentu osagarriak ere bilera-eguna baino bost egun baliodun lehenago bidali beharko dira.

3.– Dena den, kide guztiak biltzen badira eta erabakia aho batez hartzen badute, Osoko Bilkuraren eraketa baliozkoa izango da, nahiz eta deialdiaren baldintzak bete ez.

*14. artikulua.–* Aztergai-zerrenda.

1.– Lehendakariak ezarriko du bileretako aztergai-zerrenda. Ohiko bileretan, lehendakariak, aztergai-zerrenda prestatu baino lehen, behar bezala aztertu beharko ditu Osoko Bilkurako kideek gai jakin batzuk eztabaidatzeko egindako iradokizunak. Gutxienez Kontseiluko kideen herenak formalki eskatutako eztabaidagaiak, ordea, aztergai-zerrendan sartu beharko dira.

f) Decidir sobre la publicación de sus acuerdos.

g) Elaborar y modificar el Reglamento de funcionamiento del Consejo. La modificación del Reglamento se realizará conforme al procedimiento establecido en su Título IV.

*Artículo 12.–* Clases de sesiones.

1.– Las sesiones del Pleno podrán ser ordinarias o extraordinarias.

2.– El Pleno se reunirá en sesión ordinaria, preceptivamente, al menos dos veces al año.

3.– El Pleno podrá reunirse con carácter extraordinario en alguno de los siguientes supuestos:

a) A instancia del/la Presidente/a.

b) Cuando así lo soliciten, al menos, un tercio de sus miembros, y lo hagan por escrito dirigido al/la Presidente/a en el que, además de su identidad y firmas, hagan constar la expresión de los asuntos a tratar y los motivos que justifiquen la sesión extraordinaria que soliciten.

4.– El plazo para la celebración de la sesión extraordinaria será de quince días naturales como máximo a contar desde la fecha en que se registre la petición.

*Artículo 13.–* Convocatoria.

1.– La convocatoria del Pleno se efectuará por el/la Presidente/a del Consejo y será dirigida por escrito a todos los/as miembros correspondientes de aquél con una antelación mínima de quince días naturales respecto a la fecha de la sesión a convocar si fuere ordinaria, o de cinco días hábiles si fuere extraordinaria.

2.– La convocatoria contendrá, junto con la indicación del lugar, fecha y hora de la reunión, el Orden del Día de la sesión, y vendrá acompañada de la documentación específica sobre los asuntos a tratar salvo que mediare causa justificada que lo imposibilite, en cuyo caso se remitirá con una antelación mínima de cinco días hábiles respecto a la fecha de la sesión a convocar. Esta misma antelación se observará para el envío de cualquier otra documentación complementaria.

3.– En todo caso, quedará válidamente constituido el Pleno, aun cuando no se hubieren cumplido los requisitos de la convocatoria, cuando hallándose reunida la totalidad de sus miembros, lo acuerden por unanimidad.

*Artículo 14.–* Orden del día.

1.– El orden del día de las reuniones será fijado por el/la Presidente/a. En las sesiones ordinarias las sugerencias de los/as miembros del Pleno para tratar asuntos determinados serán debidamente ponderados por el/la Presidente/a antes de la elaboración del orden del día, si bien deberán ser incluidos en el mismo los asuntos que sean solicitados formalmente por, al menos, un tercio de los/as miembros del Pleno del Consejo.

2.– Bilera bereziei dagokienean, bilera egitea eskatu duen alderdiak aurkeztutako eztabaidagai guztiak sartu beharko dira aztergai-zerrendan.

*15. artikulua.–* Quorum-a.

1.– Lehenengo deialdian Osoko Bilkuraren eraketa baliozkoa izan dadin, gutxienez kideen erdiak bileran izan behar dira, eta haien artean lehendakariak eta idazkariak egon behar dute derrigor.

Quorum hori lortzen ez bada, Osoko Bilkura bigarren deialdian eratuko da, lehenengo deialdiarentzat ezarritakoa baino ordu erdi geroago.

2.– Osoko Bilkura bigarren deialdian eratzeko, nahikoa izango da kideen herena bertan izatea, baina, haien artean, lehendakariak eta idazkariak egon behar dute derrigor.

3.– Aurreko paragrafoetan ezarritako quorumak bilera osoan mantendu beharko dira.

*16. artikulua.–* Erabakiak hartzea.

1.– Bildutako kideen gehiengo soilaren aldeko botoaz hartuko dira Osoko Bilkuraren erabakiak. Berdinketa egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoak erabakiko du.

2.– Aztergai-zerrendatik kanpo geratzen diren eztabaidagaiei dagokienez:

a) Ohiko bilerako erabakia baliozkoa izateko, Osoko Bilkurako kide guztien gehiengo osoak onetsi beharko du.

b) Bilera berezietan ezingo da baliozko erabakirik hartu.

3.– Osoko Bilkurako kideek beren botoaren zergatiak adieraz ditzakete aktan.

*17. artikulua.–* Bileretako akta.

1.– Osoko Bilkuraren bilera bakoitzean akta bat egingo da; idazkariak emango du akta horren fede, eta lehendakariaren oniritziak ere aktan agertu beharko du.

2.– Honako xehetasun hauek adieraziko dira bileretako aktetan:

a) Bildutakoen izen-abizenak, bilerara justifikaturik agertu ez direnenak eta Arautegi honetako 8.h) eta 9.a) artikuluetan aurreikusitakoaren ondorioetarako justifikatu gabe agertu ez direnenak.

b) Bileraren tokiari eta denborari buruzko gorabeherak.

c) Bilera ohikoa ala berezia den, eta lehenengo ala bigarren deialdian egiten den.

d) Aztergai-zerrenda.

e) Aztertutako gaiak eta eztabaidagai nagusiak.

f) Lehendakariak zein gai proposatu dituen botoa emateko.

2.– En las sesiones extraordinarias el orden del día deberá integrar la totalidad de los asuntos presentados por quien haya instado dicha sesión.

*Artículo 15.–* Quórum.

1.– El quórum para la válida constitución del Pleno en primera convocatoria será de, al menos, la mitad de sus miembros, entre los cuales deberán necesariamente estar incluidos el/la Presidente/a y el/la Secretario/a.

Si no se alcanzare dicho quórum, el Pleno se constituirá en segunda convocatoria media hora después de la señalada para la primera.

2.– Para la constitución del Pleno en segunda convocatoria será suficiente la asistencia de un tercio de sus miembros, entre los cuales deberán necesariamente estar incluidos el/la Presidente/a y el/la Secretario/a.

3.– Los quórum establecidos en los párrafos precedentes deberán mantenerse durante toda la sesión.

*Artículo 16.–* Adopción de Acuerdos.

1.– Los acuerdos del Pleno se adoptan por el voto favorable de la mayoría simple de los/as miembros presentes. En caso de empate, decide el voto de calidad del/a Presidente/a.

2.– En cuanto a los asuntos que se traten fuera del orden del día:

a) Tratándose de una sesión ordinaria la validez del acuerdo requerirá su adopción por la mayoría absoluta del total de sus miembros.

b) Tratándose de una sesión extraordinaria no podrá adoptarse válidamente ningún acuerdo.

3.– Los/as miembros del Pleno podrán hacer constar en acta los motivos que justifican el sentido de su voto.

*Artículo 17.–* Acta de las Sesiones.

1.– De cada sesión del Pleno se levantará acta, bajo la fe del/la Secretario/a, y en la que figurará el visto bueno del/la Presidente/a.

2.– Las actas de las sesiones recogerán:

a) Nombre y apellidos de los asistentes, ausentes que se hubiesen excusado y de los que falten sin excusar, a efectos de lo previsto en los artículos 8 h) y 9 a) de este Reglamento.

b) Circunstancias de lugar y tiempo de la sesión.

c) Carácter ordinario o extraordinario de la sesión y si se celebra en primera o en segunda convocatoria.

d) Orden del día de la sesión.

e) Asuntos que se examinen y puntos principales de las deliberaciones.

f) Propuestas sometidas a votación por el/la Presidente/a.

g) Hartutako erabakien edukia eta botazioen emaitzak.

h) Hala balegokio, Kontseiluko kideek beren botoaren gainean adierazitako arrazoiak.

3.– Akta Kontseiluko kide bakoitzari bidaliko zaio, hurrengo bileraren deialdiarekin batera, bilera horretan onartu beharko da-eta akta. Bilera bakoitzeko akta hurrengo bileraren hasieran onartuko da, eta, behar izanez gero, zuzenketak egingo zaizkio aktari.

4.– Idazkariak erabaki espezifikoei buruzko egiaztagiria egin dezake, gero akta onartu beharko bada ere. Akta onartu baino lehen hartutako erabakien egiaztagirietan zirkunstantzia hori jasota geratu beharko da.

## II. KAPITULUA
## BATZORDE IRAUNKORRA

*18. artikulua.–* Eraketa eta osaketa.

Droga mendetasunen Aholku Kontseiluaren Osoko Bilkurak batzorde iraunkor bat eratuko du. Batzorde horren osaketa uztailaren 27ko 302/1999 Dekretuko 15. artikuluan ezarrita dago.

*19. artikulua.–* Eginkizunak.

Hauek dira Batzorde Iraunkorraren eginkizunak:

a) Kontseiluaren Osoko Bilkuraren bilerak prestatzea; horretarako, egiteko hauek bete behar dituzte:

– Kontseiluko lehendakariari bileretako aztergai-zerrenda prestatzeko aholkuak ematea.

– Bilerarako behar den dokumentazioa behar besteko aurrerapenaz biltzea.

– Osoko Bilkuran aztertu beharreko gaiei buruzko txostenak prestatzea.

b) Egindako kudeaketaren urteko txostena eta urtean izandako aldaketen egoera jasotzen duen balantzea prestatzea, Kontseiluko Osoko Bilkurari aurkeztu ahal izateko.

c) Batzorde tekniko espezializatuen proposamen eta iradokizunak aztertzea, hala badagokio, Kontseiluko Osoko Bilkurari igorri ahal izateko.

d) Lan egitaraua lantzea, Kontseiluko Osoko Bilkurak onar dezan.

e) Kontseiluaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiak beteko direla zaintzea.

f) Osoko Bilkurak agintzen dizkion gaiak aztertzea, gai horien izapideak egitea eta, azkenik, ebaztea.

g) Osoko Bilkurak espresuki batzordearen esku utz ditzan eginkizunak.

g) Contenido de los acuerdos adoptados y el resultado de las votaciones.

h) En su caso, las justificaciones que los/as miembros del Consejo hayan dado sobre el sentido de su voto.

3.– El acta será remitida a cada miembro del Consejo con la convocatoria de la sesión siguiente, donde deberá someterse a aprobación. El acta de cada sesión se aprobará al comienzo de la siguiente, incorporándose, en su caso, las rectificaciones oportunas.

4.– El/La Secretario/a podrá emitir certificación sobre los acuerdos específicos que se hayan adoptado, sin perjuicio de la ulterior aprobación del acta. En las certificaciones de acuerdos adoptados emitidas con anterioridad a la aprobación del acta se hará constar expresamente tal circunstancia.

## CAPÍTULO II
## LA COMISIÓN PERMANENTE

*Artículo 18.–* Constitución y composición.

El Pleno del Consejo Asesor de Drogodependencias constituirá una Comisión Permanente con carácter delegado, cuya composición es la establecida en el artículo 15 del Decreto 302/1999, de 27 de julio.

*Artículo 19.–* Funciones.

Corresponden a la Comisión Permanente las siguientes funciones:

a) Preparar las sesiones del Pleno del Consejo mediante la realización de las siguientes actuaciones:

– Asesorar al/la Presidente/a del Consejo para la fijación del orden del día de las sesiones.

– Reunir la documentación necesaria con suficiente antelación a su celebración.

– Preparar los informes previos de los asuntos que habrán de ser tratados en el Pleno.

b) Preparar, para su ulterior remisión al Pleno del Consejo, el informe anual de análisis de la gestión realizada, así como un balance de la situación en que se recojan los cambios experimentados por la materia durante el año.

c) Analizar los informes, propuestas y sugerencias de las Comisiones Técnicas Especializadas para su posterior tramitación al Pleno del Consejo, si procediere.

d) Elaborar un programa de trabajo que será presentado al Pleno del Consejo para su aprobación.

e) Velar por el cumplimiento de los Acuerdos del Pleno del Consejo.

